

GEROABAI

ANTOLAKETA OINARRIAK

12-05-23

AURKIBIDEA

1. AURREKARIAK

2. GEROA BAI KOALIZIOAREN IZAERA ESTRATEGIKOA

3. GEROA BAI KOALIZIOA

- 3.1) Osakideak
- 3.2) Helbidea
- 3.3) GEROA BAIren helburuak
- 3.4) Denborazkotasuna

4. AFILIAZIOA ETA INDEPENDENTEAK

- 4.1) Independente Atxikien eskubideak.
- 4.2) Independente Atxikien betebeharrak.

5. ORDEZKARITASUNA

6. KOALIZIOAREN ORGANOAK

6.1) BATZAR NAGUSIA

6.2) KONTSEILU NAGUSIA

- 6.2.1) KONTSEILU NAGUSIA: osaera
- 6.2.2) Hizpidea eta botoa.
- 6.2.3) KONTSEILU NAGUSIAREN bilerak

6.3) BATZORDE IRAUNKORRA

- 6.3.1) BATZORDE IRAUNKORRA: osaera
- 6.3.2) BATZORDE IRAUNKORRA: jarduna

6.4) BATZORDEAK

- 6.4.1) Batzorde orokorrak
- 6.4.2) Sektore-batzordeak eta unean unekoak

6.5) FORU PARLAMENTUKO TALDEA

6.6) UDAL HAUTETSIEIEN BATZARRA

6.7) HAUTETSIEI AHOLKULARITZA JURIDIKOA EMATEKO EGITURA

6.8) TOKIKO ERAKUNDEA: Tokiko taldeak edo Herriguneak.

- 6.8.1) HERRIGUNEEN eginkizunak eta ardurak

6.9) BESTELAKO TALDEAK

7. KARGU PUBLIKOEN ESTATUSA

- 7.1) Hautetsien betebeharrak GEROA BAIrekiko
- 7.2) GEROA BAIren betebeharrak hautetsiekiko
- 7.3) Diziiplina

8. GEROA BAIren KODE ETIKOA

9. DIZIPLINA ARAUBIDEA

10. GEROA BAI: BERMEAK ETA KONTROLA

1. AURREKARIAK

Geroa Baik jarraipena ematen dio 2004n sortu zen Nafarroa Bairen espirituari. Eta berez da Nafarroako gizarte osoan zabaldu nahi den kultura politiko berri baten adierazpena.

Kultura politiko berri horrek oinarri du nafar gizartearen aniztasuna aintzat hartzea, aniztasuna eta bazterkeriarik eza kontuan hartu beharreko balio politikoak baitira, eta, oinarri du, halaber, zeharkakotasuna ardatz politiko gidarizat jotzea. Geroa Baik bere egin baititu kulturari begira anitzak diren eta aniztasun horri probetxua atera dioten beste gizarte batzuetako esperientziak; horretan oinarrituta, beraz, bizitza demokratikoan sakondu nahi du herritartasunarekin bat datozen planteamenduen bidez, eta gizabidezko abertzaletasun eta abertzaletasun instituzionalarekin bat.

Ahalegin horretan ari gara bi alderdi politiko (EAJ/PNV eta Atarrabia Taldea), Zabaltzen elkarte eta jende kopuru nabarmen bat, nor bere izenean aritu dena, baina denak bizipozez beterik eta proiektu honekin engaiaturik.

2. GEROA BAI KOALIZIOAREN IZAERA ESTRATEGIKOA

GeroBain ari garenok NaBain bizi izan genuen eskarmentua kontuan hartuta, eta Estatuan dauden antzeko esperientziak aztertu ondoren, Geroa Bai koalizioaren izaera estrategikoa berresten dugu. Hala Zabaltzen elkarteak nola EAJ-PNVk beren ideia politikoei, egiturari, antolaketari eta barne bizitzari eutsiko badiete ere, Geroa Bai da aukeratu dugun subjektua bai politikarako bai hauteskundeetarako; ez, ordea, bozen arabera jokatzeko, etorkizuna duen proiektua baita eta tresnarik hobereana irizten diogu Nafarroako aldaketa politikoa eragiteko.

Geroa Bai koalizioa anitza da, baina aniztasunak ez dakar aitzakiarik eraginkorra ez izateko. Horrenbestez, antolaketa anitz eta parte-hartzaileak ez du oztopo izan behar erabaki-organoak sortzeko, ezta antolaketa-egitura sendo, arin eta eraginkorra antolatzeko ere, unean uneko erabakiak egokiro eta garaiz hartze aldera.

Geroa Bai hauteskunde-koalizioaz haratago doan erakundea da, herritarrek osaturiko mugimendu politikoa baita, anitza eta irauteko asmo osoa duena. Agiri honetan bildutako antolaketa-oinarriak Gero Bairen lehen antolaketa-oinarriak dira. Erakundearen sustatzaileak direnez gero eta, bestela ezin izan zitekeen bezala, oso garrantzitsua da Zabaltzen elkartearen eta EAJ-PNVren eginkizuna. Antolaketa-oinarriok, beraz, Geroa Bai garatzea eta errotzea gidatu beharko lukete 2015. urteko bukaerara bitarte, hau da, hala Nafarroan nola Estatuan lehen hauteskunde-ziklo bat itxi arte. Behin denboraldi hori iraganik, betiere arestian azaldu dugun espiritu ireki eta anitzarekin

bat, eta koalizioaren bilakaera bera ikusita, bai egungo osakideei dagokienez bai Geroa Bairen oinarriak eta helburuak bere eginez proiektuarekin bat egin nahiko luketen politika eta gizarte arloko balizko erakundeei dagokienez, Zabaltzen-ek eta EAJ-PNVk antolaketa-oinarriak berritzea sustatuko dute, Geroa Bairen egitura eta antolaketa barne-egoerara egokitzeko, betiere gogoan harturik eta erabat sinetsirik Geroa Bai izanen dela Nafarroan aldaketa politikoa eragiteko eta eragiten jarraitzeko tresnarik onena.

3. GEROA BAI KOALIZIOA

Hauteskunde Orokorren atarian geundela, hauteskundeak arautzeko legeek halaxe behartuta, alderdi politikoen arteko koalizioaren formula juridikoari heldu behar izan zitzaion.

Horrela, EAJ-PNV eta Atarrabia Taldea alderdi politikoen artean eratu zen formalki Geroa Bai Koalizioa, eta 2011ko irailaren 28an aurkeztu zen Hauteskunde Batzordearen aurrean. Era berean, Geroa Bai hauteskunde-izena EAJ/PNV eta Uxue Barkos Berruezoren izenean erregistratu zen patenteen eta marken bulegoan. Uxue Barkos Berruezok Zabaltzen-en izenean jardun zuen, data hartan elkartea erabat formalizatua ez zegoelako. Era berean, Interneteko hainbat domeinu erregistratu ziren, Geroa Bairen titulartasunpean. Behin antolaketa-oinarriok onetsita, eta oinarriekin bat, ordezkartzeko organoak eta organo exekutiboak hautatuta, izen hori EAJ/PNVren eta Zabaltzen-en jabetzakoak izanen dira. Organo eskudunek, hartara, behar diren aldaketa guztiak eginen dituzte patenteen eta marken bulegoan, jabetza EAJ/PNVrena eta Zabaltzen-ena izan dadin.

Geroa Bai izena erabiliko da antolaketa-oinarriok agintzen dutena hertsiki betetzeko.

3.1) OSAKIDEAK

Geroa Baiko kide sortzaileak EAJ/PNV eta Atarrabia Taldea alderdiak eta Zabaltzen dira.

Koalizio-izaera formala ezinbestekoa da hauteskundeetan parte hartzeko, baina osakide guztiok ederki dakigu eta aintzat hartzen dugu Geroa Bai hauteskunde-koalizio hutsa izateaz haratago doala eta berez dela irauteko asmo osoa duen erakunde politiko bat, zeinean izatez Zabaltzen-ek jardungo baitu EAJ-PNVren mintzakide politiko gisa Batzorde Iraunkorraren baitan, bai eta Antolaketa Oinarriok betetzeko sortzea erabakitzen diren organo betearazle guztietan ere, baina kontuan hartuta bestelako jende independenteak aukera ere izanen duela koalizioari zuzenean lotzeko, Oinarriotan aurreikusitako moduaren eta ondorioen arabera.

Geroa Baik komunikazio eta kontsulta bide arina izanen du Atarrabia Taldearekin, Atarrabia Taldea Koalizioaren sortzaileetako bat baita.

3.2) HELBIDEA

Geroa Bairen koalizioaren helbidea Iruñean izanen da, eta egoitza helbide honetan kokatuko da, zehazki: Erriberri kalea, 42, solairuartea. P.K.: 31004.

Helbidea hori izanik ere, Koalizioak eskualdean eskualdeko eta tokian tokiko nahi beste egoitza ireki ahal izanen ditu.

3.3) GEROA BAIREN HELBURUAK

3.3.1) Helburu orokorrak:

a.- Kultura politiko berri bat sustatzea, gizabidezko abertzaletasun barnerakoi eta erabat demokratikoaren eta ezker euskaltzalearen aldekoa, betiere gure gizartean dauden sektore aurrerazaleenekin bat eginda.

b.- Eredu iraunkorraren alde lan egitea ekonomian, gizartean eta ingurumenean, betiere oinarri harturik enplegu osoa (langabezia maila tekniko hutsa), ongizate-estatua, kontu publiko garbiak eta zerga-bide zuzena eta progresiboa, iruzurgileari tokirik utzi gabe.

c.- Politika egiteko molde berriak landu nahi dituzten herritar guztiengana hurbiltzea, bai eta Nafarroako gizartearen aniztasuna eta kezka, inor bazterrean utzi gabe, proiektatu nahi dituzten guztiengana ere.

d.- Barne eta kanpo estrategia zorrotza gauzatzea, kargu publikoen ustelkeria-jarduerak errefusatzeko eta salatzeke, eta, era berean, arlo horretan dagozkien erantzukizunak bere gain hartzeko.

e.- Bakea, erabaki-eskubidea, aniztasuna eta bizikidetzaren errotzen laguntzea; Euskal Herriko gainerako lurraldeekiko harremanak estutzea.

3.3.2) Berriazko helburuak:

a.- Lan egitea, Nafarroako arazo handiak epe laburrean konpontze aldera: ekonomia-krisia gainditzea eta enplegua sortzea; ongizate-estatuaren alde lan egitea; lan kolokatasunaren eta lan istripuen aurka borroka egitea, eta borroka ere, gazteek, emakumeek eta etorkinek sufritzen duten bazterkeriaren aurka, bai eta milaka adinekok sufritzen duten arretarik ezaren aurka ere; zentzuzko garapen

iraunkorraren alde lan egitea, informazioaren eta ezagutzaren gizartearen alde egitea, bai eta ordezkatuak sentituko garen europar esparru baten alde ere.

b. – Nafar herritarren interesen alde egitea:

- Ezkerraren eta aurrerazaletasunaren balioak oinarri harturik.

- Abertzaletasun barnerakoi, gizabidezko eta demokratikoa oinarri harturik.

c.- Erreferendumaren eta herri-kontsultaren alde egitea, herritarrak sakon ukitzen dituzten alderdien gainean erabakitzerakoan, bai eta egin gabe dirauten aldaketa konstituzionalak erabakitzerakoan ere.

d.- Nafarroako autogobernuaren eskumen-esparrua handitzea aldarrikatzea.

Geroa Baik, errealismoz eta arduraz, gure Hitzarmen Ekonomikoa eta gure zerga-autonomia aldeztu ditu beti autogobernua sakontze aldera eta gure eskubide historikoak garatzea sustatzeko. Gainerako erakunde politikoek, alde horretatik, Estatuarekiko *paktismo txikia* bultzatu eta garatu dute Foru Hobetzearen baitan. Geroa Baik, aldiz, Estatuarekiko *paktismo nagusia* proposatzen du, bide horrek gure autogobernua zabaltzeko eta bideratzeko aukera emanen baitu, gure hauteskunde-programan eta gure proiektu politikoan eta instituzionalean hitza eman genuen bezala.

e.- Printzipio politiko hau berrestea: hots, Nafarroako foru erregimenak muga bakar bat izan beharko luke; hots, herritar gehienek askatasunez eta demokratikoki adierazitako borondatea.

f.- Nafar herritarrengan alde edo moldez eragina duten kontuak eztabaidatzen diren foro guztietan parte hartzea; dela Estatuan, dela Europan, dela beste edozein tokitan.

3.4) DENBORAZKOTASUNA

Geroa Baik irauteko asmoa osoa du. Indarrean dagoen hauteskunde-legedia betetzeko, hala ere, Hauteskunde Koalizioak bere lege-indarraldia aldi-aldi berrituko du bozak daudenean: hots, hauteskunde orokorrak (Kongresua eta Senatua) eta Nafarroako foru eta udal hauteskundeak.

4. AFILIAZIOA ETA INDEPENDENTEAK

Geroa Baiko gizarte-kidegoa EAJ/PNVko kideek, Zabaltzen-eko elkartekideek eta koalizioari **atxikita** dauden pertsona independenteek osatzen dute.

Geroa Baik independente atxikien izaera aitortzen die baldintza hauek betetzen dituztenei:

a) Ezein alderdi politikotako diziplinari lotuta ez egotea eta ezein alderdi politikotako egitura organikoko kide ez izatea, Geroa Bai koaliziokoa izan ala ez, eta Zabaltzen-eko elkartekidea ez izatea.

b) Koalizioaren oinarriak eta arau indardunak onartu eta betetzea.

c) Geroa Baiko Erregistroan, independente atxiki gisa, izena emanda egotea. Izena emateko, eskabidea aurkeztu behar zaio Geroa Baiko Batzorde Iraunkorrari, eta izen-abizenak, NANA, helbidea, herria, lanbidea, posta elektronikoa eta telefonoa adieraziko dira; era berean, hala bada, tokiko zer taldetan edo Herrigunetan sartu nahi duen adieraziko da. Geroa Baiko osakideen bi afiliatu, elkartekide eta/edo pertsona atxikiren sinadura-abalarekin aurkeztuko da eskabidea.

Eskabidea zuzenean bidali behar da Batzorde Iraunkorrera, edo bestela, tokiko talde edo herrigune baten bitartez.

Kontseilu Nagusiak, Iraunkorrek proposaturik, pertsona atxikiak antolatzeko eta jarduteko arauak onetsiko ditu.

Geroa Bairen irudikoz, atxikia izatea pertsonaren eta koalizioaren arteko itun bat da eta, itun hartatik, eskubideak eta betebeharrak eratortzen dira. Eskubideok eta betebeharrak EAJ-PNVko afiliatuek eta Zabaltzen-eko elkartekideek dituzten berberak dira. Desberdintasun bakar bat dago, ordea: hots, atxikiek zuzenean erabiltzen dituzte eskubideak eta betebeharrak Geroa Bain, eta EAJ-PNVko afiliatuek eta Zabaltzen-eko elkartekideek, aldiz, EAJ-PNVren bidez eta Zabaltzen-en bidez.

4.1) GEROA BAIko ATXIKIEN ESKUBIDEAK. Hona hemen koalizioari atxikiak daudenen gutxienezko eskubideak:

a) Atxikitzerakoan, gutxienezko eta oinarrizko agiriak jasotzea GEROA BAI arautzen duten printzipioak eta arauak ulertzeko.

b) GEROA BAIk sortzen duen informazio guztia edo haren printzipioekin edo eguneroko kudeaketarekin zerikusia duena ahalik eta lasterren jasotzea.

c) GEROA BAIko jardueretan eta erabakietan parte hartzea, nork bere atxikitzearen esparruan, eta Koalizioaren arauetan ezarritakoarekin bat. Berezik, GEROA BAIko sektore-batzordeetan eratzen diren lan-taldeetan.

- d) GEROA BAiko edozein barne kargu hautatzea edo edozein barne kargurako hautatua izatea eta, era berean, bozetarako hautagaiak proposatzea eta hautagai gisa proposatua izatea, hori guztia arauekin bat.
- e) GEROA BAiri atxikitako independente orok hitz egiteko eskubidea du haren jarduera politikoari buruzko erabakia hartu behar den kasu guztietan eta, bereziki, zehapen-prozedurak izapidetzerakoan.

4.2) GEROA BAiko ATXIKIEN BETEBEHARRAK. Hona hemen koalizioari atxikiak daudenen gutxienezko betebeharrak:

- a) Dagokion Erregistroan izena emanda egotea.
- b) GEROA BAiko printzipioak eta politikak hobetzen, aldezen eta zabaltzen laguntzea.
- c) Koalizioko arauak eta erabaki indardunak onartzea eta betetzea.

Batzorde Iraunkorrak ezarritako kuota ordaintzea.

5. ORDEZKARITASUNA

Nafarroa Baiko barne desadostasunak eta horri lotutako ezegonkortasuna gehien haizatu zituzten arrazoen artean ordezkartasunaren kontua izan zen; zehazki, koalizioko kide batzuek beretzat hartu eta besteei ezarri zieten ordezkartasuna, beren nagusitasuna sendotu nahian. Izan ere, 2003ko hauteskunde-emaitzak oinarri harturik (gehienez jota, eta zalantzak ez ziren gutxi izan, erreferentziatzat balio zezaketen hurrengo urtean egindako hauteskunde orokorretarako), aipatu kideek emaitza horien automatismoa inposatu zuten 2007ko foru hauteskundeetarako eta ondoko bozetarako, jakinik ere 2003ko egoerak eta inguruabarrek ez zutelara deus ikusterik handik urte batzuetarakoekin, 2011ko foru bozetan eta hauteskunde orokorretan ikusi dugun bezalaxe. Hortaz, oso ordezkartza-kuota desberdinak inposatu zituzten, urteak aurrera eginagatik ere, inolako aldaketarik gabe, logika ororen aurka; horrek argi eta garbi salatzen du kide batzuentzako, NaBai egoeraren araberrako tresna barren hutsa izan zela.

Esperientzia bera eta zer ondorio izan zituen ikusita, Geroa Baiko bazkide sortzaileok hasieratik beretik erabaki dugu ordezkartasun parekidea ezartzea, funtsezko helburua lortzeko bitartekorik onena baita: hots, oinarri sendoak lantzea, Geroa Bai etorkizuna duen elkarren arteko proiektu estrategiko gisa eraikitzeko. Ikuspegi hori oraintxe berretsi dugu eta Zabaltzen-en eta EAJ/PNVren arteko ordezkartasun parekidea berresten dugu, printzipio orokor gisa, Geroa Bairen baitan eta ondorio guztietarako (antolaketa, hauteskunde-zerrendak, herriguneeen ordezkartza, etab.).

Aurrekoa gorabehera, Geroa Baiko atxikiei dagokien ordezkariak aitortuko zaie koalizioaren barne-organoetan eta tokia izanen dute bestelako instantzietan; hauteskunde-zerrendetan, etab., esate baterako.

Nolanahi ere, orain erabaki dugun ordezkariak berrikusi eta inguruabar berrietara moldatuko da, Geroa Baiko osadera aldatzen den neurrian.

6. KOALIZIOAREN ORGANOAK

6.1) BATZAR NAGUSIA

Batzorde Iraunkorrek deituta, Geroa Baik Batzar Nagusi bat egingen du gutxienez urtean behin, proiektua bere egiten duen jende guztiarentzako zabalik. Batzarrak informazioa emateaz gain, erabakiak ere hartuko ditu, gobernu-organoek egiten duten kudeaketaren gaineko azalpena emanen da, koalizioa nola dabilen azalduko da, bai eta etorkizunerako planak ere. Era berean, Batzarrean parte hartzen dutenei aukera emanen zaie beren kritikak, proposamenak eta iradokizunak aurkezteko, ezartzen den moduarekin bat.

6.2) KONTSEILU NAGUSIA

Geroa Baiko organo politiko gorena da eta eginkizun hauek betetzea dagokio:

- a) Koalizioak oinarri dituen printzipioak eta oinarri politikoak onestea eta egin beharreko politiken gaineko estrategia orokorra, lehentasunak eta oinarrizko ildoak ezartzea.
- b) Geroa Baik arautuko duten antolaketa-oinarriak eta aplikazio orokorreko arau guztiak onestea, bai eta aldaketak ere.
- c) Batzorde Iraunkorrek igortzen dituen hauteskunde-programak onestea.
- d) Batzorde Iraunkorrek hauteskunde-prozesu bakoitzean proposatzen dituen hautagaitzak berrestea, antolaketa-oinarriekin bat.
- e) Koalizioak beste edozein indar politikorekin sinatu beharreko akordioak onestea, balizko gobernu-akordioak barne.
- f) Batzorde Iraunkorren urteroko kudeaketa-txostenak onestea, bai eta Geroa Baik ordezkariak duen talde instituzionaletakoak ere.
- g) Geroa Bairen antolaketa-sisteman eta jardunbidean hobekuntzak bultzatu eta proposatzea.
- h) Berme eta Kontrol Batzordeko kideak hautatzea.

- i) Batzorde Iraunkorrek edo Kontseilu Nagusiko kideek berek proposatzen dituzten kontuen gainean eztabaidatzea eta, egokia bada, erabakia hartzea.
- j) Kontseilu Nagusia bera arautuko duten jardun-arauak ezartzea.

6.2.1) Kontseilu Nagusia: osaera

Pertsona hauek izanen dira Kontseilu Nagusiko kide:

- 10 ordezkari, EAJ/PNVk izendatuta.
- 10 ordezkari, Zabaltzen-ek izendatuta.
- Geroa Baiko atxikiek izendatzen dituzten ordezkariak, atxikien kopuruaren arabera, eta gehienez ere, 10, hau da, 6-10 puntuan ezarritakoarekin bat.
- Geroa Baiko tokiko talde edo herrigune bakoitzak izendatutako ordezkari bat, gehienez 10 kide badituzte, eta bina ordezkari, 10etik gora kide badituzte. Herriguneek formalki eratuta egon behar dute.
- Gazteok Baiko bi ordezkari, haien kideek hautatuta.

6.2.2) Hortaz landara, pertsona hauek izanen dira Kontseilu Nagusiko kide, hizpidearekin baina botorik gabe:

- Gorte diputatuak, senatariak eta foru parlamentariak.
- Ordezkari bat, Geroa Baiko udal hautetsi afiliatuak edo atxikiak dituen Udal bakoitzeko. Hainbat hautetsi badira, haiek berek izendatuko dute.
- Batzorde Iraunkorra.
- Berme eta Kontrol Batzordea.
- Batzorde Iraunkorrek Kontseilu Nagusian parte hartzera gonbidatzen ahalko ditu Geroa Baiko atxikiek osatutako talde iraunkorretako ordezkariak, interesgarritzat jotzen badira.

6.2.3) Kontseilu Nagusiaren bilerak

Kontseilu Nagusiak bi bilera arrunt egingen ditu urtean, eta bilera berezia, Batzorde Iraunkorrek deitzen duen bakoitzean, Batzordearen beraren ekimenez edo, gutxienez ere, Kontseilu Nagusiko kideen % 20k eskatuta.

Batzorde Iraunkorrek deialdian bertan finkatuko du bilera noiz, zer ordutan, non egingen den, bai eta eguneko aztergaien zerrenda ere. Bilera Kontseilu Nagusiko kideek berek eskatuta egitekoa baldin bada, eguneko aztergaietan sartuko da kideek proposatzen duten gaia.

Kontseilu Nagusiko bileren burua izanen da Kontseiluak berak izendatzen duen huraxe, eta pertsona horrek eztabaidak ere zuzenduko ditu. Era berean, buruorde bat eta idazkari bat hautatuko dira. Kontseilua eratutzat joko da, lehen deialdian, kideen erdiak baino bat gehiago biltzen direnean eta, bigarren deialdian, bertaratutakoen kopurua edozein izanda ere. Bozketa unean dauden kideen % 60ren aldeko botoa gutxienez beharko da erabakiak hartzeko, salbu eta 6.2 puntuan ezarritako a) eta b) eginkizunei dagozkienetan, Kontseilu Nagusiko kideen % 75en aldeko botoa beharko baita.

6.3) BATZORDE IRAUNKORRA

Batzorde Iraunkorra Geroa Baiko organo exekutibo gorena da eta eginkizun eta ardura hauek dagozkie:

- a) Koalizioaren izaerari berari dagozkion gai guztiak eztabaidatu eta erabakitzea; hala nola, koalizioa handitzea, murriztea, estatus juridikoa aldatzea, etab.
- b) Koalizioaren ordezkaria izanen da politikan, arlo juridikoan, ekonomian eta finantzetan, etab.
- c) Geroa Baik landu beharreko estrategiei, lehentasunei eta politika-ildoei dagozkien akordioak gauzatzea.
- d) Geroa Baik gai eta une bakoitzean jarraitu beharreko estrategiak, lehentasunak eta politika-ildoak landu eta gauzatzea, Kontseilu Nagusiak ezarritako jarraibideekin bat.
- e) Koalizioak aurkezten den hauteskunde-prozesu bakoitzeko programak lantzea, eta Kontseilu Nagusira bidaliko ditu, onets ditzan.
- f) Kongresurako, Senaturako, Foru Parlamenturako eta merindade bakoitzeko herri nagusietarako hautagaitzak Kontseilu Nagusira igortzea, berrets ditzan.
- g) Indarrean dauden eta hartzen diren erabakiak betetzea. Bereziki, eskubideei eta betebeharrei, barne demokraziari eta berdintasunari dagozkienak.
- h) Urtealdi bakoitzeko kontuak eta koalizioak landutako aurrekontuak urtero onestea, horri buruz finkatzen diren arauekin bat.
- i) Geroa Bairen antolaketa herrietan garatzea; hartara, tokian tokiko edo eskualdean eskualdeko erakundeak sortzea bultzatuko da, Antolaketa Batzordearekin elkarlan estuan eta oinarriotan ezarritako arauekin bat (6.8 puntua), eta herriguneak onestea.

- j) Koalizioaren eguneroko zereginak ahalbidetuko dituen administrazio-lanak kudeatzea. Hartara, administrazio arloko ardurak betetzeko, Batzorde Iraunkorrek zehaztuko du zer egitura behar den kontratatuko diren langileentzako, nolako profila izanen duen lanpostu bakoitzak eta zer lan egingen dituzten, hori guztia edozein kontratazio egin aurretik.
- k) Geroa Baiko karguekin edo talde jakin batzuekin bilerak edo batzarrak non egin eta eguneko zer aztergairekin erabakitzea.
- l) Batzorde Iraunkorrek Geroa Bairen proiektua gauzatzeko egoki deritzon sektore-batzordeak eta unean unekoak proposatuko ditu. Alor bakoitzeko edukiak zehaztuko ditu, bai eta batzordekide bakoitzaren profila ere.

6.3.1) Batzorde Iraunkorra: osaera

Pertsona hauek izanen dira Batzorde Iraunkorreko kideak:

- 3, EAJ/PNVk izendatuta
- 3, Zabaltzen-ek izendatuta
- 1, Geroa Bairi atxikita dauden pertsona independenteek izendatua.

Talde horietako bakoitzak ordezeko ordezkari bat izendatuko du bere kideen artean.

Hizpidearekin baina botorik gabe:

- Bat, Hauteskunde Orokorretan hautatutako hautetsiek izendatuta
- Bat, Foru Hauteskundeetan hautatutako hautetsiek izendatuta.

6.3.2) Batzorde Iraunkorra: jarduna

Batzorde Iraunkorrek batzordeburu bat aukeratuko du batzordekideen artean, eztabaidak zuzentzeko, bai eta buruorde bat eta idazkari bat ere. Batzordekideen bi herenen aldeko botoa beharko da aipatu karguak aukeratzeko, aurkezten diren hautagaien artean. Bozketa sekretua izanen da.

Batzordeburua eta buruordea Koalizioko eledunak izanen dira.

Batzorde Iraunkorra aldi behin bilduko da, ezartzen den egunean eta orduan.

Erabakiak aho batez hartu beharko dira 6.3 puntuko a) idatz-zatiko arloei dagokienez.

Gainerako arloetan erabakiak bilduta daudenen gehiengo hartuko dira, salbu eta EAJ/PNVk edo Zabaltzen-ek kontu jakin batean Batzordeko kideen bi herenen gehiengo kualifikatua eskatzen dutenean. Idazkariak bilera guztien akta jasoko du, hartzen diren erabakiak biltzeko, eta batzordekideren batek eskatzen badu, hark kasuan kasuko gaian izan duen jarrera ere bai.

6.4) BATZORDEAK

Hainbat Batzorde Orokor eratuko dira, antolaketaren jarduna hobetze aldera eta Batzorde Iraunkorraren jarduerak egokiro garatze aldera, betiere Batzorde Iraunkorrak zuzendurik eta gainbegiraturik. a. Era berean, sektore-batzordeak edo unean unekoak eratuko dira, Batzorde Iraunkorrak holakoak sortzea egoki ikusten badu, alor jakin batzuk aztertzeko edota unean uneko arazo edo gai zehatzak jorratzeko.

6.4.1) Batzorde Orokorrak

6.4.1.1) Batzorde Orokor hauek eratuko dira:

ANTOLAKETA BATZORDEA. Geroa Baik eta erakundeko kideek eguneroko jardunean izan ditzaketen era guztietako beharren jarraipen iraunkorra egitea egokituko zaio. Harreman arina izanen du tokiko erakundeekin eta koalizioan sarturik dauden gainerako taldeekin; tokiko erakundeak eta gainerako taldeak jarduerak garatzera bultzatuko ditu eta antolaketa arloko beharrei erantzungo die. Batzordearen mendean, Geroa Bairen udal hautetsiei harrera egiteko gune bat antolatuko da eta, gune horren bidez, zuzenean edota laguntza tekniko baten bidez, behar bezalako laguntza eta sostengua emanen die.

Koalizioko hautetsien arteko koordinazio zuzenaz arduratuko da, bai eta laguntza emateaz ere, eta, era berean, lan-taldeak osatzea erraztuko du hautsiei laguntzeko.

KOMUNIKAZIO BATZORDEA. Koalizioaren barne eta kanpo komunikazioa diseinatu eta zuzenduko du. Komunikabideen beharrez eta eskariez arduratuko da eta Geroa Baiko kargu publikoei eta organikoiei laguntza emanen die, bai eta tokian tokiko erakundeei ere, haiekin harremanetan sartu behar dutenean.

Batzordeak mass mediekiko agerpen eta harreman politikak diseinatu eta ezartzea izanen du eginkizun, baina bestelakoez ere arduratuko da. Batzordeak, izan ere, Giza Sareetan elkar eragiten diharduten erkidegoekiko edukiak sortzeko, zaintzeko, harremanetarako eta mezuetarako estrategiak abiarazi, haien jarraipena egin eta ezarri behar ditu. Lan hori ikuspegi zabal batetik egingen da, profil eta kontu korporatiboetatik, eta koalizioko hautetsien eta barne karguen kontu pertsonalak sustatuz eta lagunduz (inola ere ordezkatu gabe).

Batzordeak krisi estrategiak eta planak diseinatu eta ezarriko ditu, bai eta bakoitzerako protokoloak ere.

Era berean, barne komunikabideek informazio eta elkarrizketa fluxua bi norabideetan helaraztea bermatuko du, barne harremanen indargarri.

Horretarako, esanen du zer-nolako bitartekoak behar diren bai teknika kontuetan, bai langileetan, bai prestakuntzan, eta Batzorde Iraunkorrari proposamen zehatzak igorriko dizkio, hori guztia ezartzeko.

EKONOMIA BATZORDEA. Koalizioak ekonomian eta finantzen arloan jarduteko arauak ezarriko ditu. Arlo horren jarraipena egiteaz arduratuko da, eta uneoro jakin beharko du zertan den Geroa Bairen finantza-egoera. Diru-sarrereren aurrekontua hobetzeko modua izanen du xede, eta Batzorde Iraunkorrean parte hartuko du, gastu-politika zehazterakoan.

6.4.1.2) Batzorde Orokorra: osaera eta jarduna

Batzorde Iraunkorreko kide bat izanen da Batzorde Orokorreko buru, hartara propio izendatutakoa, edo bestela, koalizioko beste kide bat izanen da buru, hau da, afiliatu-elkartekide-atxiki bat, baldin eta esperientzia badu eta egokia bada, eta Batzorde Iraunkorrek izendatzen badu. Batzorde Orokorreko kideak izanen dira xede horretarako gonbidapena jasotzen duten pertsonak; betiere, jende gaituak eta parte hartzeko denbora duenak jasoko dute gonbidapena. Halaber, egiturako langileak ere izanen dira batzordekide, kasuan-kasuan zehazten denarekin bat.

Batzorde bakoitzak bere jardun-araubidea ezarriko du, eta Batzorde Iraunkorrari jakinaraziko zaio. Erabakiak gehiengo soilaz hartuko dira.

6.4.2) Sektore-batzordeak eta unean unekoak

Batzorde Iraunkorrek erabateko askatasuna izanen du, egoki jotzen duenean, Sektore-batzordeak eta unean unekoak osatzeko, GEROA BAIk sektorez sektore egin beharreko politiken ildo orokorrak aztertze eta proposatze aldera, eta Batzorde Iraunkorrari eta erakundeetako karguei arlo guztietan laguntza emate aldera eta koalizioak jarrera hartu beharreko gai eta arazo zehatzak jorratze aldera.

Batzorde Iraunkorrek Sektore edo Unean uneko Batzorde bakoitzeko arduraduna izendatuko du, eta arduraduna arduratuko da gainerako batzordekideak proposatzeaz. Batzordekideak nor diren aukeratzeko, kontuan hartuko dira zer-nolako gaitasuna duten kasuko arloan, bai eta pertsonak duen denbora ere. Batzorde hauetan erakundeetako karguak izanen dira kide, hala nahi badute eta arlo jakin batez interesatuta badaude.

Batzorde Iraunkorrek izendatzen duen arduradunak deitu eta zuzenduko ditu Batzordeak, eta era berean, bilkuretan zer gai aztertu den jasoko du idatziz. Erabakiak gehiengo soilaz hartuko dira, eta Batzorde Iraunkorrari lanen emaitzaren berri emanen zaio. Batzorde Iraunkorrek, bere aldetik, interesa izan dezaketen erakundeetako karguei helaraziko dizkie.

6.5) FORU PARLAMENTUKO TALDEA

Foru Parlamentuko Geroa Bai taldea osatuta egonen da Koalizioak Nafarroako Foru Parlamentuan dituen parlamentari guztiez.

Parlamentuko Geroa Bai taldeak bere araudia edo arauak ezarriko ditu barne jardunerako, eta Parlamentuko taldearen eta Batzorde Iraunkorraren arteko, edo sektore-batzordeen arteko, etab. harremanak Antolaketa Oinarriotan ezarritakoarekin bat bideratuko dira.

Parlamentuko Geroa Bai taldeak bere kideen artean aukeratuko du Batzorde Iraunkorrean izanen duen ordezkaria.

6.6) UDAL HAUTETSIEN BATZARRA

Nafarroako Udaletan alkateak eta zinegotziak diren Geroa Baiko afiliatu, elkartekide edota atxikiak Hautetsien Batzarra osatuko dute. Batzarra elkarri

laguntzeko, eta udal eskumeneko gaiak bateratzeko, aztertzeko eta eztabaidatzeko organoa izanen da.

Hautetsien Batzarrak bere araubidea ezarriko du bilerak eta jarduna arautzeko, eta Antolaketa Batzordeak laguntza emanen dio.

6.7) GEROA BAIri ATXIKITAKO HAUTETSIEI AHOlkULARITZA JURIDIKOA EMATEKO EGITURA.

Geroa Baik eta koalizioa sortu duten bazkideek, ahal dute neurrian, behar duten aholkularitza emanen diete hautetsiei, bai afiliatuei, bai elkartekideei, bai atxikiei, udal gaietan, udalak kudeatzeko arloetan esperientzia duten aholkulari tekniko eta juridikoen bitartez.

6.8) TOKIKO ANTOLAKETA: Tokiko Taldeak edo Herriguneak.

Koalizioaren helburuak hobeki betetzearren, herri edo eskualde jakin bateko Geroa Baiko afiliatuek, elkartekideek eta atxikiek elkartzeko eta tokiko taldeak edo Herriguneak osatzeko aukera izanen dute, beren jarduera politikoa garatzeko.

Oinarriotan parekidetasunaren oinarri orokorra aurreikusia badago ere, oinarria kasuan kasuko inguruabar zehatzetara moldatzen ahalko da.

Tokiko taldeak sortzea Antolaketa Batzordeari jakinarazi beharko zaio, zer geografia esparrutan osatu den, taldea nork osatzen duten (gutxienez bost kidez osatuta egonen dira beti), oinarrizko zer arau dituen eta zer-nolako jarduera duen adierazita, bai eta taldea nork koordinatuko duen ere. Aipatu Batzordeak formalki eratuta dauden Herriguneei dagozkien erregistro bat eginen du. Geroa Baiko batzorde Iraunkorrak tokiko taldeak sortzea onetsiko du.

Herrigunearen koordinatzailea mintzakide nagusia izanen da Geroa Baiko organo nagusiekin.

Tokiko taldeak Batzorde Iraunkorrek hitz egin beharko du, garrantzi publikoa izan dezakeen edo koalizioa konprometitu dezakeen erabaki edo jarduera ororen aurretik.

6.8.1) Herriguneen eginkizunak eta ardurak:

- Tokiko gai edo gai orokor interesgarriak aztertu, eztabaidatu, landu eta bateratzea.

- Geroa Baiko tokiko hautetsiei sostengua eta laguntza ematea.
- Hauteskunde-prozesuak prestatu eta garatzea; hartara, udal hautagaitzen prestaketan parte hartuko dute, eta parte hartu halaber, programetan, hauteskunde-kanpainen, etab.
- Kontseilu Nagusiak edo Batzorde Iraunkorrak kontsultatzen dizkieten kontuen gaineko eztabaidak egitea eta erabakiak hartzea.

6.9) BESTELAKO TALDEAK

Tokiko taldeez edo Herriguneez gainera, Batzorde Iraunkorrak bestelako taldeak onesten ahalko ditu, betiere Geroa Baiko afiliatuek, elkartekideek eta/edo atxikiek osatutakoak, koalizioarentzako interesagarri jotzen diren jarduerak egonkortasunez eta iraunkortasunez garatzeko.

Gainerako taldeek bezala, berariazko talde hauek Geroa Baiko Antolaketa Batzordera jo beharko dute, batzorde Iraunkorrak onets dezan eskatzeko eta, era berean, dagokion erregistroan izena emateko. Hartara, batzordekideak, jarduerak, antolaketa eta jarduera modua adierazi beharko dituzte, eta, era berean, nor izanen den Geroa Baiko organo nagusien eta batzordearen arteko koordinatzailea eta mintzakidea.

6.10) GEROA BAIri ATXIKITA DAUDEN INDEPENDENTEEN ORDEZKARITZA.

Beren talde egituratuetan (hau da, EAJkoak edo Zabaltzen-ekoak direnak) ordezkaritarik ez duten Geroa Baire atxikita dauden independenteek beren hauteskunde-kidegoa osatzen dute.

Ordezkaritza bat izanen dute Batzorde Iraunkorrean, eta ordezkaritza bana, elkartutako 35 pertsona edo atal bakoitzeko; gehienez ere, 10 ordezkaritza izanen dituzte.

6.11) GEROA BAI SAREA.

Geroa Baik giza sare bat antolatuko du GEROA BAI SAREA izenarekin, eta koalizioan formalki partaide ez izanik ere, proiektuarekiko interesa agertzen duen jendeaz osatuta egonen da. Xede hartarako, behar adina bitarteko jarriko dira jende horri Geroa Baire buruz beharrezkoa den informazioa aldi behin igortzeko, bai eta haien kezak eta iritziak ezagutzeko ere.

7. KARGU PUBLIKOEN ESTATUSA

7.1) HAUTETSIEN BETEBEHARRAK GEROA BAIREKIKO.

Geroa Bairen zerrendetan aurkezten den jende orok Koalizioaren helburuak eta programa onartzen ditu eta, era berean, konpromisoa hartzen dute, erakundeetan helburuen eta programaren alde egiteko; bakoitzak hautatu duten erakundean, hain zuzen.

Geroa Baiko zerrendetako hautagaiak koalizioaren esanetara jarriko dira hauteskunde-kanpainak dirauen bitartean, kanpainan parte hartzeko.

Behin hautaturik ateratzen bada, dagokion taldean sartu eta antolatuko da; hau da, parlamentuko taldean edo dagokion udal taldean. Hautetsiak taldearen bileretan, eztabaidetan eta erabakietan parte hartu behar du. Era berean, onartu eta bete egin behar ditu era demokratikoz eta Koalizioan ezarritako gehiengo motaren arabera hartzen diren erabakiak, eta haren erakunde-jarduerarekin edo botoarekin zerikusia dutenak.

Hautetsi orok konpromisoa hartzen dute Geroa Bairen programa orokorra eta gobernu-programa aldezteko.

7.2) GEROA BAIREN BETEBEHARRAK HAUTETSIEKIKO.

Geroa Baik konpromisoa hartzen du hautetsiei konfiantza eman eta mantentzeko, babes politikoa emateko eta laguntza emateko dela giza bitartekoetan, dela bitarteko teknikoetan, dela bitarteko ekonomikoetan, legealdi osoan. Koalizioak, era berean, konpromisoa hartzen du hautetsien jarduera politikotik eratortzen diren eskariak aztertu, landu eta aintzat hartzeko. Geroa Baiko erabaki-organoek emandako jarraibideak bat etorriko dira hautetsiek onartzen duten programarekin.

Erakundeek berek edo Koalizioak jarduera instituzionala garatzeko eskura jartzen dituzten laguntzaileak edo langileak akordio bidez izendatuko dira; parlamentuko edo udal taldearen, zuzenean aipatu ardura izanen duen hautetsiaren eta Geroa Baiko Batzorde Iraunkorraren arteko akordioaren bidez, hain zuzen ere.

Koalizioak, ahal duen neurrian, behar adina diru-bitarteko bermatuko ditu hautetsien dedikazio osoari edo partzialari erantzuteko. Holako zereginetan arituko diren pertsonekin erabakiko da zenbat diru behar den, betiere kontuan hartuta zer dedikazio mota den eta nolako ardura den, eta kontuan hartuta, halaber, Koalizioak irizpide orokor ezarri dituen hautetsientzako ordainsariei dagokienez.

7.3) DIZIPLINA.

Geroa Baiko hautetsiek izaera horixe dute, Koalizioaren zerrendetan aurkeztu izanari esker, Koalizioaren programarekin bat, eta koalizioaren jarduera, ardurak eta erabakiak arautzen dituzten barne-araudiak onartuta. Horrenbestez, holakoren bat betetzen ez bada, hautetsiek hautsi egingen dute Geroa Baiko kide diren aldetik bere gain hartzen duten diziplina.

Hautetsiei diziplina-jarduera ezarriko zaie, Koalizioari kalte egin nahi badiote, Koalizioaren planteamenduak betetzen ez badituzte, Geroa Baien programaren aurkako jarrerak aldeztu badituzte, ezartzen den botoaren kontrako bozka ematen badute edota parlamentuko edo kasuko udal taldearen diziplinatik atera nahi badute.

8. GEROA BAIren KODE ETIKOA

Koalizioaren berezitasun gisa, Geroa Baiko hautetsi guztiek politikan nola jokatu zehazten duen kode etiko bat bete beharko dute, eta konpromiso hori azpimarratzekoa da:

- a) Informazioa eta gardentasuna, ohiko ilunkeriaren aurrean; hartara, behar adina bitarteko moldatuko dira informazioa eta iritzia emateko, kideen eta boto-emaielen artean kontsultak edo inkestak eginez. Era berean, komunikazio arinerako bideak ezarriko dira gure gizarteko giza talde eta erakunde zibil guztiekin.
- b) Nafar gizarteari zerbitzua ematearen aldeko jarrera; hau da, kargua dedikazioz, arduraz, gogoz eta duintasunez bete behar da.
- c) Eskuzabaltasun, altruismo eta austeritate balioak sustatu eta aplikatuko dira jarduera politikoan aritzerakoan.
- d) Kargu publiko orori berez dagokion bezala, zerbitzua egiterakoan, interes orokorrak eta karguari berariaz dagozkionak jarri egingen dira interes pertsonal ooren gainetik, hala arlo ekonomikoan nola besteetan.
- e) Geroa Baiko kargu publikoek bakar-bakarrik jasoko dituzte eginkizun hori betetzeko ezarrita dauden ordainsariak, soldatak eta dietak. Enpresa publikoetako edozein

Administrazio Kontseilutan parte-hartzeagatik dagokion beste diru-sarrera oro kobratzeko, Koalizioaren Batzorde Iraunkorrek oniritzia eman beharko du. Hartara, Geroa Baiko kargu publikoek zorrotz beteko dute bateraezintasunei buruzko legeria, bai eta Koalizioak gai horri buruz ezartzen dituen printzipioak ere.

- f) Geroa Baiko kargu publikoek ez dute zilegi izaneren negozioei eta lanbide-jarduerei lotuta egotea, baldin eta beren jarduera ofizialaren edo beren zeregin publikoen kontrakoak badira.
- g) Koalizioko kargu publikoek ez dute onartuko ez gaur egungo ez etorkizuneko ondorioekin, zerbitzuak emateko proposamenik, edonolako ondasun eta eskubideak lagatzeko eta/edo erabiltzeko kontratuak egiteko proposamenik, ezta enpresetako, sozietateetako eta abarretako partaidetzarik ere, balio ekonomikoa eta/edo ondarezkoa badakarte.
- h) Kargu publikoek ez dituzte beren alde eta hirugarrenen alde erabiliko karguari esker eskuratzen dituzten informazioak, edonolako ordainik edo abantailarik lortze aldera.

9. DIZIPLINA ARAUBIDEA

Koalizioaren arauen eta printzipioen kontrako jarduera orori eta Geroa Baiko kideen eskubide eta betebeharren araubidearen aurkako jarduera orori bere zehapena ezarriko zaio, larritasunaren arabera.

Zehapena jarri aurretik, zehapen-espeditentea abiaraziko da eta espedienteak ireki zaion pertsonari entzun egingen zaio.

Zehapen-espeditenteak Berme eta Kontrol Batzordeak abiaraziko ditu, bere ekimenez edo alde batek eskaturik.

Diziplina-araudi batek zehatz-mehatz ezarriko ditu zer portaera diren zigortzeko modukoak, larritasunaren graduazioa, eta era berean, zehapen-prozedura zehatz-mehatz zehaztuko du.

10. BERME ETA KONTROL BATZORDEA

Berme eta Kontrol Batzordeak eskumen hauek ditu:

- a) Antolaketa Oinarriotako arauak eta printzipioak leialtasunez bete daitezen begiratzea.

b) Geroa Bairen baitan, barne-demokrazia ahalik eta errespetu handienarekin bete dadila zaintzea.

c) Koalizioa osatzen duten pertsonen eta erakundeen eskubideen eta duintasunaren alde egitea.

d) Alde interesdunak eskaturik, bitartekaritza egitea Geroa Baiko kideen artean gerta daitezkeen gatazketan, bai eta tokiko erakundeen eta Herriguneeen artekoetan, edo batzuen eta bestekoen artean.

Berme eta Kontrol Batzordea hiru kidez osatuta egonen da, bana Koalizioan ordezkaritza duten hiru taldeen izenean.

Berme eta Kontrol Batzordeko kidea izatea ez da bateragarria Geroa Baiko bestelako barne eta kanpo kargua izatearekin, ezta Koalizioarekiko lan-lotura edo lotura ekonomikoa izatearekin ere.

Berme eta Kontrol Batzordeko kideak aukeratzeko bozketak sekretuak izanen dira, eta Kontseilu Nagusiak hautatuko ditu EAJ-PNVk, Zabaltzen-ek eta Geroa Bairi atxikitako independenteek aurkezten dituzten hiruna izenen artean.

Berme eta Kontrol Batzordeak bere jardun-arauak ezarriko ditu, eta Kontseilu Nagusiak berretsi beharko ditu. Batzordekideek berek, gainera, kideetako bat aukeratuko dute bilerak zuzentzeko eta eztabaidak moderatzeko.